BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

973

EBAZPENA, 2016ko otsailaren 9koa, Gazteria eta Kirolen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2016. urteko ediziorako onartutako proiektuen zerrenda ezagutzera ematen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko azaroaren 11ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2016. urteko ediziorako proiektuak aurkezteko deia egiten die Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei. Agindu hori 2015eko azaroaren 16an eman zen argitara EHAAn.

Agindu horren eranskinaren 11.1 oinarrian xedaturikoa betetzeko, Gazteria eta Kirolen zuzendariak ebazpena eman du 2016ko urtarrilaren 25ean. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2016. urteko ediziorako proiektuak onartu ditu. Ebazpen horretan jaso da onartu ez diren proiektuen zerrenda ere.

Gazteria eta Kirolen zuzendariaren ebazpenaren berri emango zaie banan-banan interesdun guztiei. Horrez gain, aginduaren eranskinaren 11.2 oinarrian xedaturikoari jarraituz, onartu diren eta onartu ez diren proiektuen zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, zabalkunde osoa izan dezaten.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2016. ediziorako onartu diren proiektuen zerrenda (ikusi I. eranskina), zabalkunde osoa izan dezan. Proiektu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek aurkeztu dituzte, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2015eko azaroaren 11n emandako Aginduaren babespean (2015eko azaroaren 16ko EHAA).

Bigarren artikulua.– Argitara ematea, zabalkunde osoa izan dezan, onartu ez diren proiektuen zerrenda (ikusi II. eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 9a.

Gazteriako eta Kiroletako zuzendaria,
JON REDONDO LERTXUNDI.

I. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2016ko «Auzolandegiak» programarako ONARTU DIREN PROIEKTUAK

Eskaera egin duen erakundea	Auzolandegiaren proiektua	Auzolandegia non	LH	Lan-mota	Onartutako txanda kopurua
Aguraingo Udala	Pedroko Hezegunearen eta Aguraingo ingurune berdearen berreskurapena, garbiketa eta errebalorizazioa	Agurain	Araba	Ondare naturalaren kontserbazioa	2
Añanako Gatz Harana Fundazioa	Añanako Gatz Haranaren berreskurapena eta mantentze-lanak	Gesaltza-Añana	Araba	Ondarea eta ingurumena berreskuratzea	2
Arraia-Maeztuko Udala	Indusketa lanak Korres asfaltoen fabrika zaharrean	Maeztu	Araba	Arkeologia eta ondarea berreskuratzea	2
Aisilan Kultur Elkartea	Antonio Truebaren bizi-ingurunean San Gines bidea egokitzea	Galdames	Bizkaia	Ondarea berreskuratzea	2
Lekeitioko Udala	Hirugarren adinekoentzako animazioa Uribarren Abaroa egoitzan	Lekeitio	Bizkaia	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	2
Lemoako Udala	Memoria historikoa: Gerra Zibila Lemoatxen	Lemoa	Bizkaia	Arkeologia eta ondarea berreskuratzea	2
Urremendi Landa Garapen Elkartea	Kulturak eta Naturak ingelesez egiten dute Busturialdean	Busturialdea	Bizkaia	Gazteen dinamizazioa	2
Bergarako Udala	Belaunaldi arteko trukaketa Mizpirualde Egoitzan	Bergara	Gipuzkoa	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	1
Elgoibarko Udala	Acondicionamiento de paredes mediante el empleo de técnicas de grafiti. Mejora en la señalización de senderos de montaña	Elgoibar	Gipuzkoa	Ondarea eta ingurumena berreskuratzea	1
Urretxuko Udala	Irimo proiektuaren barne Sarralde eraikuntzaren egokitzapena	Urretxu	Gipuzkoa	Ondarea berreskuratzea	2

II. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2016ko «Auzolandegiak» programarako ONARTU EZ DIREN PROIEKTUAK

Eskaera egin duen erakundea	Auzolandegiaren proiektua	Auzolandegia non	LH	Lan-mota	Zergatik ez den onartu
Asparreneko Udala	Ibai ibilguen garbiketa eta birnaturalizatzea	Araia	Araba	Ingurumena berreskuratzea	Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu
Bilarko Udala	Galtzada berreskuratzea	Elvillar	Araba	Ondarea berreskuratzea	Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu
Tertangako Administrazio Batzarra	Ubiros errota berreraikitzea	Tertanga	Araba	Ondarea berreskuratzea	Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu
Balenharri Iraskundea	Meatzaldea	Abanto Zierbena	Bizkaia	Ondarea eta ingurumena berreskuratzea	Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu
Gizarteka Elkartea	Emprendiendo en Berango	Berango	Bizkaia	Giza proiektua	Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu